

# LONJAIALDIA

FILM LABURREN MIKRO JAILADIA  
MICRO FESTIVAL DE CORTOS

LONJAK EZ DIRA ZULO ZIZTRINAK!

LA LONJA NO ES UN KUTXITRIL!

## FILM LABURREN MIKRO JAILADIA

### GAIA

#### LONJAIALDIA "Lonjak ez dira zulo ziztrinak"

Lonjetan sortzen diren istorioak, han egiten diren ekintzak edo ingurunearekiko bizikidetasun zuzenaren alde gauzatzen diren jarduerak.

### PARTE HARTZAILEAK

**Lonja duten 14 urtetik 30era** bitarteko Vitoria-Gasteizko gazteek.

Aukeratutako eta saritutako parte-hartzaileei Gasteizen daudela egiaztatzeko agiriak eskatuko ahal zaizkie.

Adingabeak izanez gero aitaren, amaren edo tutorearen idatzitako baimena aurkeztu behar izango dituzte.

### LANEN KOPURUA

Parte hartzaile bakoitzak nahi adina film labur aurkeztu dezake.

Egindako bideo proposamen bakoitzak gehienez 6 minutu iraungo du.

### LANAK BIDALTzea

**A) Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoan** (GAUB). Plaza Berria 1, behea. 01001 – Vitoria-Gasteiz. Orduetgia (astelehenetik ostiralera): 10:00 - 14:00 eta 17:00 - 19:00 (astelehen eta ostiral arratsaldeetan, itxita)

Lanak CD edo DVD batean aurkeztu behar dira, sinatu gabeko gutun-azal batean sartuta. Gutun-azalean lanaren izena eta LONJAIALDIA "Lonjak ez dira zulo ziztrinak" erreferentzia jarri behar dira. Barruan beste gutun-azal bat sartu behar da, datu eta dokumentu hauek dituen: egilearen izen-abizenak, adina, harremanetarako telefonoa, posta elektronikoa eta NANaren fotokopia. Gutun-azal horren kanpoaldean lanaren izena eta LONJAIALDIA "Lonjak ez dira zulo ziztrinak" erreferentzia jarri behar dira.

**B) Posta elektronikoz [lonjaialdia@gmail.com](mailto:lonjaialdia@gmail.com)** helbidera bidaliz gero, "Gaiari" LONJAIALDIA "zure lonja ez da zuloa" jarriko da.

Mezuan edo itsatsitako fitxategian, lehiaketara proposatuko lanaz gain, honako datu hauek adierazi beharko dira: izen-deiturak, adina, harremanetarako telefonoa eta NAN zenbakia.

### JASOTZEKO EPEA

2015eko **apirilaren 20tik maiatzaren 24ra** bitartean, biak barne.

### MIKRO JAILADIA

**Ekainaren 5ean** aukeratutako lanen emanaldia eta sarien banaketa izango da.

### SARIAK

**1. Film labor onena: reflex kamara bat Nikon D3200 + 18-55mm no VR, kutxatila, liburua eta tripodea.**

**2. Mikro jaialdiko publikoaren saria: lonjarako material sorta bat.**

**3. Accesita: lonjarako materialak.**

### EPAIMAHIA

Gazteria Atalaren teknikariek eta ikus-entzuzkoen arloko profesionalak aurkeztutako lanen originaltasun eta gaiarekin zerikusia kontuan izango dute.

### OHARRAK

Lehiaketari edo oinarri hauei buruzko edozein galdera argitzeko honako posta elektronikora jo dezakezue gaiari LONJAIALDIA adieraziz: [lonjaialdia@gmail.com](mailto:lonjaialdia@gmail.com)

Argazkiek argitaratu gabeak eta jatorrizkoak izan behar dute.

Aurkeztutako argazkiak Gazteria Atalaren esku geratuko dira, eta argazki horiek erabili nahiz kopiatzeko eskubidea beretzat gordetzen du, betiere egilearen izen-abizenak aipaturik.

Lehiaketaren antolatzaileek argazkien baliozotasuna erabakiko dute, eta arrazoiren batengatik (iraingarria izateagatik, esaterako) lehiaketaren izpiritarekin bat ez datorrela uste badute, ez argitaratzea erabaki ahaliko dute.

Parte hartzeak oinarri hauek guztiak, bai eta epai-mahaiaren erabakiak ere, onartzen direla dakar berekin.

Antolatzaileek bere esku izango dute oinarri haue-tan jaso ez den edozein gorabehera ebaztea.

### + INFO

[www.vitoria-gasteiz.org/gaztelonjak](http://www.vitoria-gasteiz.org/gaztelonjak)  
[lonjaialdia@gmail.com](mailto:lonjaialdia@gmail.com)  
945 161 990

Ematen ari zaren datuak erakunde honek dituen datu pertsonalen fitxategian sartuko direla jakinarazten dizu Vitoria-Gasteizko Udalak, EKINTZEN KUDEAKETA ETA ZABALKUNDEA izena duen fitxategian zehazki, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez. Fitxategi horren helburua udal eskumenen alorrean Udalak antolatutako kultur edo gizarte ekintzak kudeatu, zabaldu eta sustatzea da. Zure eskubideez baliatu nahi baduzu –dagozkizun datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertu–, jo ezazu udaletxeko Argibide Bulegora (Olagibel, 2 – 01001 Vitoria-Gasteiz) edo Herritarrei Laguntzeko Bulegoetara.

